

JOKALARI BETERANOEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETA.

2008.go urtarrilaren 12tik otsailaren 23ra arte jokatu zen, Iruñeko Juslarrotxa Gizarte Etxean. 2 orduko eta erdiko partidak izan ziren. Zazpi jardunaldiko sistema suitzarra erabili zen. 10 jokalarik eman zuten izena (iaz baino 2 gehiago).

AZKENEKO JARDUNALDIKO EMAITZAK.

Jesus Maria Gonzalez Pabollet (5) – Fernando Hernandez Zorzano (2): 1-0.

Francisco Javier Ayerra (2'5) – Isidro Diaz Redondo (4'5): 1-0.

Julio Vazquez Arellano (3'5) – **Diego Moral (3'5)**: 0-1.

Prospero Tercero (1'5) – **Jose Antonio Apesteguia (3'5)**: 0-1.

Jose Luis Garcia Unzueta (0): Atsedena (puntu bat).

AZKENEKO SAILKAPENA.

1) Jesus Maria Gonzalez Pabollet – 6 puntu.

2) Jose Antonio Apesteguia Domaica – 4'5 puntu.

3) Isidro Diaz Redondo – 4'5 puntu.

4) Diego Moral Barragan – 4'5 puntu.

5) Julio Vazquez Arellano – 3'5 puntu.

6) Francisco Javier Ayerra Aizpun – 3'5 puntu.

7) Fernando Hernandez Zorzano – 2 puntu.

8) Prospero Tercero Nuñez – 1'5 puntu.

9) Jose Luis Garcia Unzueta – Puntu bat.

Txapelketa utzitakoa: Miguel Donazar Garayoa.

Jose Maria Gonzalez Pabollet gazte mailako Nafarroako txapeldun izan zen, aspaldiko garaian. Bi aldiz izan da jokalaria guztientzako Nafarroako Txapelketan txapeldun. Orain, beteranoen titulu honekin, ia adin guztietan Nafarroako txapela bereganatu du. Ez da marka makala!

Iaz bigarren geratu zen Txapelketa honetan.

Gaur egun, Euskal ELOan 2.021 puntu ditu eta Nafarroako ELOan 1.804 puntu.

Diego Moralen aurka galdu zuen bigarren jardunaldian, baina gero partida guztietan irabazi zuen (bosgarren txandan partida erabakigarria zuen Miguel Donazarren aurka, baina honek ez zuen jokatzetik izan eta Txapelketa utzi zuen).

Jose Antonio Apesteguiak berdindu zuen Diego Moralen aurka eta gero galdu zuen Gonzalez Pabolleten aurka. Isidro Diazen aurka ere galdu zuen eta azken momentura arte ez zuen bigarren postua harrapatu.

Diego Moralek lehenengo biekirin puntu eta erdi atera zituen. Miguel Donazar eta Fernando Hernandez Zorzanoren aurka galduta, txapelari agur erran zion, ordea. Azkenean, laugarren amaitu zuen.

Jokalari beteranoen Nafarroako azken lau Txapelketak Rafael Ruiz Escobarrek irabazi zituen. Aurten, aldi berean jokatzeko zen Neguko Txapelketan parte hartzea nahiago izan zuen.

2008-02-23.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.